


Barria - Elgea



KOKAPENA

Barria eta Elgea arabar lautadaren iparraldean kokatuta dauden bi herri dira. Gipuzkoako muga naturala den izen berdineko mendi lerroan barrena abiatuko gara. Arabako lautadari buelta ematen dion Gr 25eko etapa baten zatia egingo dugu, aurreko urteetan Zalduondotik Barriara doan etapa egiten hasi genuena hain zuzen.

Kasu honetan, Garaioako urtegiara doan ibilbidea egingo dugu, handik Landara doan bidea datorren urterako utziaz.

DESKRIBAPENA

Ibilbideak bide atsegin eta erosoak hartuko ditu motorrak pixkanaka berotzeko. Bide hauek, harrien artean eta bide-zidorrez osatutak izango dira. Guztira, berrehun bat metro desnibeleko eta hamaika kilometroko irteera izango dugu. Beraz, exigentzia maila ertaineko irteera izango da. Normalean egiten dena baino pixka bat luzeagoa.

Aurreko etapan Barriara eraman gaituen mendi-bidea hartuko dugu, eta, lehenengo bidegurutzean, ezkerretara joko dugu. Zenbait mendi-bide zeharkatu ondoren, Axpuru zein Larreako herri-guneetara doazen saihe-bideak utziko ditugu alde batera, eta Arduñabetako ur-putzua inguratuko dugu. Laster, abeletxeetako txabolen ondotik igaro eta zuhaitzian barruratuko gara, harik eta Ozaetara doan auzo-errepideraino heldu arte. Herri-gune horretara iritsi baino lehen, eskuineko saihe-bidea hartuko dugu, Elgeara hurbiltzeko.

IBILBIDEA

KM 0 Barrian hasiko gara ibiltzen, monastegiaren ondoan hain zuzen eta herria gurutzatzen duen pista jarraituz, ezkerretara joko dugu bide-gurutze batean.

KM 3 Basalde nekazaritza eta abeltzaintzako poligonoaren ondotik pasako gara, nahiz eta ez dugun gurutzatuko. Iparralderantz eramango gaituen pista batetik Aurrera egingo dugu baso eremu batean sartzeko.

KM 6 Ardanubeta urtegi txikiari buelta emango diogu eta norabide aldaketa egiteko aprobetxatuko dugu ere. Puntu honetatik aurrera, mendebalderantz joko dugu Garaioko urtegien norabiderantz.

KM 8 Abalatxeko txabolak izaeneko bordaz jositako zonalde bat gurutzatuko dugu, Elgea herritik gertu gaudelaren pista bat bezala.

KM 10 Hemendik gure helburua gertu ikusteko aukera izango dugu. Paisai aldaketa bat izango dugu, basoez gain harri eta uraz beteriko ikuspegiak izango ditugu. Baita nekazal lurrak ere.

KM 13 Elgeara helduko gara, bertan autobusa izango dugu gure zain.

